

En Pamplona, a 18 de febrero de 2020

## REUNIDOS

De una parte, D. Unai Hualde Iglesias, con domicilio a efecto de notificaciones en la calle Navas de Tolosa, 1, CP 31002 de Pamplona, comparece en su calidad de Presidente del Parlamento de Navarra.

Y de otra, D. Manuel Martín Iglesias, con domicilio a efecto de notificaciones en Palacio Ezpeleta, calle Mayor, 65, CP 31001 de Pamplona, comparece en su calidad de Presidente del Consejo Escolar de Navarra, en ejercicio de las facultades inherentes a su cargo que le facultan para la firma de este convenio.

Ambos se reconocen capacidad suficiente para la suscripción del presente Convenio Marco y al efecto:

## MANIFIESTAN

1. Que el Parlamento de Navarra, como institución democrática representativa del pueblo de Navarra, está comprometido con la apertura de espacios de participación ciudadana como vehículo de encuentro entre la propia institución y el conjunto de la sociedad navarra, con el propósito de ampliar los cauces de aproximación de los intereses de la ciudadanía a la actividad propia de la Cámara legislativa. Para ello, el Parlamento de Navarra está abierto a la acogida de todas aquellas manifestaciones de interés general, con objeto de posibilitar a todos los sectores de nuestra Comunidad Foral un espacio de conocimiento, de relación y de debate de todos aquellos temas considerados de interés para la ciudadanía navarra.

2. Que el Consejo Escolar de Navarra es el máximo órgano de participación de la comunidad educativa en la planificación de la enseñanza no universitaria de Navarra, y en él están representados los principales sectores implicados en la educación. Además de elaborar los preceptivos dictámenes sobre los diversos aspectos de la programación general de la enseñanza, tiene entre sus objetivos la elaboración de estudios e informes sobre aspectos relevantes de la educación, organizar jornadas de difusión de los estudios e informes realizados y de aquellos temas que son de interés para la comunidad educativa de Navarra.

3. Que entre las actividades anteriormente citadas, se encuentra el Ciclo "Las tardes del Consejo Escolar de Navarra" en las que mediante un formato de jornada breve se abordan, a través de exposiciones de expertos y expertas, y mesas redondas participativas, temas de interés y actualidad para la comunidad educativa.

4. Que el Parlamento de Navarra, en el marco de sus actividades dirigidas a fomentar la participación ciudadana, asume el interés de la colaboración con el Consejo Escolar de Navarra ofreciendo espacios de la sede y apoyo para la celebración del ciclo "Las tardes del Consejo Escolar de Navarra".

En virtud de todo ello, el Parlamento de Navarra y el Consejo Escolar de Navarra estiman oportuno suscribir el presente Convenio Marco con arreglo a las siguientes

#### CLÁUSULAS:

**Primera.** Suscribir el presente convenio marco por el que el Parlamento de Navarra colaborará, siempre que sea posible, con el Consejo Escolar de Navarra en orden a impulsar y facilitar las actividades propias del Consejo en materia de encuentros y participación de la comunidad educativa de Navarra.

**Segunda.** Es intención de ambas partes concretar esa colaboración en la organización y celebración del ciclo "Las tardes del Consejo Escolar de Navarra", sin perjuicio de poder acordar en el futuro otro tipo de colaboraciones.

**Tercera.** Estas sesiones, se celebrarán en la sede del Parlamento. La periodicidad y fecha de celebración, la temática a tratar y los aspectos organizativos de las mismas, se acordarán de forma previa entre ambas instituciones.

**Cuarta.** Las actividades que se programen al amparo de lo previsto en el presente convenio marco serán aprobadas, previo consenso entre ambas instituciones, por la Mesa del Parlamento de Navarra que, en su caso, autorizará para cada una de ellas los gastos que se deriven de su organización.

**Quinta.** Para el seguimiento y ejecución de este convenio, así como para resolver las posibles divergencias que pudieran surgir en la interpretación de sus términos, y con el fin de estimular y coordinar las actuaciones de las partes, se constituye una Comisión de Seguimiento y Ejecución, compuesta de cuatro miembros, dos en representación de cada una de las partes.

**Sexta.** El presente convenio entrará en vigor en el momento de su firma y su vigencia inicial será la del año 2020 y se extenderá hasta el año 2023, pudiendo prorrogarse por el plazo que consideren oportuno las partes, que suscribirán para ello un documento que se adjuntará a éste como Anexo.

Y en prueba de conformidad firman el presente Convenio, por duplicado, en el lugar y la fecha indicados al comienzo.

El Presidente del  
Parlamento de Navarra



D. Unai Hualde Iglesias

El Presidente del Consejo  
Escolar de Navarra



D. Manuel Martín Iglesias



Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

## BILDURIK


Alde batetik, Unai Hualde Iglesias jauna, jakinarazpenetarako helbidea Navas de Tolosa kalea, 1, 31002-Iruña duena, Nafarroako Parlamentuko lehendakari bezala bertaratua.

Eta bestetik, Manuel Martín Iglesias jauna, jakinarazpenetarako helbidea Ezpeleta Jauregia, Kale Nagusia, 31001-Iruña duena, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakari bezala bertaratua, hitzarmen hau sinatzeko ahalduntzen duten bere karguaren berezko botereez baliaturik.



Biek esparru-hitzarmen hau sinatzeko adinako gaitasuna aitortzen diote elkarri. Horrenbestez,

### HONAKOIA ADIERAZTEN DUTE:



1. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkariak duen erakunde demokratiko gisa, konpromisoa daukala herritarren partaidetzarako guneak irekitzearekin, erakundearen beraren eta nafar gizartearen osotasunaren arteko topagune izateko, herritarren interesak Legebiltzarrak berezko duen jarduerari hurbiltzeko bideak zabalgotze aldera. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak jarrera irekia dauka interes orokorreko adierazpen guztiei abegi egiteko, halatan Foru Erkidegoko sektore guztiei gune bat eskaintze aldera ezagutzarako, harremanerako eta nafar herritarren interesekotzat jotzen diren afera guztiak eztabaidatzeko.

2. Nafarroako Eskola Kontseilua hezkuntza-erkidegoak Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren plangintzan parte hartzeko organo gorena da, eta bertan ordezkariak daude hezkuntzarekin zerikusia daukaten sektore nagusiak. Irakaskuntzaren programazio orokorraren zertzelada ezberdinei buruzko nahitaezko irizpenak egiteaz gain, bere helburuen artean dauka azterlanak eta txostenak egitea hezkuntzaren zenbait alderdi garrantzitsuri buruz, eta jardunaldiak antolatzea eginiko azterlan eta txostenak nahiz Nafarroako hezkuntza-erkidegoaren intereseko gaiak jendearenganatzeko.

3. Lehen aipaturiko jardueren artean dago "Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak" zikloa, zeinetan, jardunaldi laburraren formatuari heldurik, hezkuntza-erkidegoarentzat interesekoak eta gaurkotasunekoak diren gaiak jorratzen baitira, adituek emandako azalpenen eta partaidetzazko mahai-inguruen bidez.

4. Nafarroako Parlamentuak, herritarren parte-hartzea sustatzera bideraturiko bere jardueren artean, Nafarroako Eskola Kontseiluarekin lankidetzan aritzearen interesa aitortzen du, eta bere egoitzako espazioak nahiz laguntza eskaintzen ditu "Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak" zikloa egiteko.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Eskola Kontseiluak egoki deritzote honako klausulen arabera esparru-hitzarmena sinatzeari.

### KLAUSULAK

**Lehena.** Esparru-hitzarmen hau sinatzea, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentua, ahal den guztietan, lankidetzan ariko baita Nafarroako Eskola Kontseiluarekin, halatan bultzatu eta errazte aldera Nafarroako hezkuntza-erkidegoaren topaketei eta parte-hartzeari dagokienez Kontseiluak dituen jarduera berekiak.

**Bigarrena.** Bi aldeen asmoa da lankidetzaz hori gauzatzea "Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak" deritzon zikloa antolatuz eta eginez, ezertan galarazi gabe etorkizunean bestelako lankidetzaz-motak adostu ahal izatea.

**Hirugarrena.** Saio horiek Parlamentuaren egoitzan egingen dira. Saioen aldizkakotasuna eta data, tratatu beharreko gaiak eta horien antolaketa-alderdiak aurretiaz adostuko dira bi erakundeen artean.

**Laugarrena.** Esparru-hitzarmen honek aurreikusten duenaren babesean programatzen diren jarduerak, bi erakundeen arteko adostasuna bilatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren onespina izan beharko dute, zeinak, jarduera horietako bakoitzerako, haien antolaketa-eraren ondoriozko gastuak baimenduko baititu.

**Bosgarrena.** Hitzarmen honen jarraipen eta betetzeari dagokionez, bai eta hitzarmenaren testua interpretatzean sor litezkeen balizko desadostasunak ebazteko ere, eta aldean jarduketak sustatu eta koordinatzeko, Jarraipenerako eta Betetzeerako Batzorde bat eratzen da, lau kidez osatua: alde bakoitzeko bina.

**Seigarrena.** Hitzarmen honek sinatze-unean hartuko du indarra, eta hasierako indarraldia 2020koa izanen du, eta 2023. urtearen amaierara arte luzatuko da. Indarraldi hori aldeek egoki deritzoten epeaz luzatu ahalko da; horretarako, agiri bat izenpetuko dute, honako honi eranskin gisa atxikiko zaiona.


Eta, adostasun frogagisa, hitzarmen hau bikoiztuta sinatzen dute, hasieran adierazitako toki eta egunean.

Nafarroako Parlamentuko  
lehendakari



Unai Hualde Iglesias jauna

Nafarroako Eskola  
Kontseiluko lehendakari



Manuel Martín Iglesias jauna